

**Santurtziko Udalaren ebazpena, zeinen bidez jakitera ematen den Santurtziko Udal Hilerrian panteoiak egiteko partzelak emateko prozedura.**

Tokiko Gobernu Batzordeak 2012ko abenduaren 4ko 2012/33 saioan onartu zuen Santurtziko Udaleko Hilerrian partzelen kontzesio administratiborako Baldintza Plegua, jendaurrean jarri dena aipatu emakiden lizitazioa egiteko.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko otsailaren 5eko 2013/5 saioan goian esandako baldintza pleguen aldaketa onartu zuen.

1.- Esleipendun erakundea: Datu orokorrak eta informazioa jasotzeko datuak:

- a) Erakundea: Santurtziko Udala.
- b) Espedientearen izapideak egiten ari den Arloa: Obra eta Zerbitzuak.
- c) Dokumentazioa eta informazioa jasotzeko
  - 1) Arloa: Obra eta Zerbitzuak.
  - 2) Helbidea: Parkea, 10.
  - 3) Herria eta posta kodea: Santurtzi – 48980.
  - 4) Telefonoa: 944205812.
  - 5) Faxe: 944839194
  - 6) Posta elektronikoa: [cementerio@santurtzi.net](mailto:cementerio@santurtzi.net)
  - 7) Webgunea: <http://www.santurtzi.net>
  - 8) Dokumentazioa eta informazioa jasotzeko azken eguna: Gutun-azal itxiak aurkezteko epeak dirauen bitartean.
- d) Espediente zenbakia: 2012/1

2.- Xedea:

- a) Deskribapena: Santurtziko hilerrian dauden partzelen emakida, panteoiak egiteko.
- b) Kokapena:
  - a) Helbidea: Santurtziko hilerria
  - b) Herria eta posta kodea: Santurtzi - 48980
- d) Emakidaren iraupena: 50 urte
- e) Luzapenaren aurreikuspena: EZ

3.- Tramitazioa eta prozedura:

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- d) Esleitzeko irizpide bakarra: Ezarritako kanonetik gora.

4.- Partzela bakoitzeko gutxiengo kanona hurrengo hau da (zenbateko hauek ez daude BEZari lotuta):

ZENBAKIA	TALDEA	NEURRIAK	ZENBATEKOA
----------	--------	----------	------------

37	I	440X390 17,16 m2	10.296,00 €
54	I	320X380 12,16 m2	7.296,00 €
15-B	II	365X345 12,6 m2	7.560,00 €
15-D	II	365X345 12,6 m2	7.560,00 €
55	III	315X380 12 m2	7.200,00 €
74	III	330X285 9,4 m2	5.640,00 €
112	III	330X285 9,4 m2	5.640,00 €
53	IV	330X255 8,4 m2	5.040,00 €

5.- Eskatutako bermea:

Behin-betikoa: Ez dago.

6.- Esleipendunen baldintza espezifikoak: Santurtzin erroldatutako pertsona fisikoak, jarduteko gaitasun osoa dutenak edo legez ordezkaturak daudenak.

7.- Parte hartzeko eskaintzen edo eskaeren aurkezpena:

a) Aurkezteko azken eguna: 30 egun natural, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jai eguna balitz, epea hurrengo lehenengo lan eguna izango litzateke.

b) Aurkezte-euskarria: Bi gutun-azal itxita, A eta B, nahi izanez gero, zigiluz itxita. Eskaintzaileak edo horren ordezkariak sinatuta egon beharko dira.

c) Aurkezteko tokia:

d) Arloa: Obra eta Zerbitzuetako Arloa (DYAren ondoko moduluak), Parkea 10.

Herria eta posta kodea: Santurtzi – 48980

Dokumentazioa postaz bidali ahal izango da. Horrela eginez gero, interesatuak egiaztatu behar izango du eskaintza zein egunetan jarri den posta bulegoan, eta egun berean Obra eta Zerbitzuetako Arloan eskaintza edo eskaintzak bidali direla jakinarazi beharko du fax edo telegrama baten bidez (jakinarazpena egunaren edozein ordutan egin ahal izango da, epearen azken egunera arte). Bi baldintzok bete ezean, ez da dokumentazioa onartuko, baldin eta Obra eta Zerbitzuetako Arloan iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, adierazitako egunaren ondorengo

hamar egunetan ez bada dokumentazioa jasotzen, berau ez da inolaz ere onartuko.

e) Helbide elektronikoa: Ez dago

f) Eskaintzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: Esleipena izan arte.

#### 8.- Eskaintzak irekitzea:

a) Helbidea: Murrieta etorbidea 6. Areto Nagusia..

b) Herria eta posta kodea: Santurtzi – 48980.

c) Eguna eta ordua: Aurkezteko epea amaitzen denean, mahaiak eskaintza bakoitzaren A gutun-azalak zabalduko ditu.

Mahaiak zuzen daitezkeen akats edo gabeziarik antzematen badu aurkeztutako dokumentazioan, beroriek zuzentzea eskatuko du.

Dokumentazioa ekarri eta zuzentzeko 3 laneguneko epea emango da, zuzenketa eskatu eta biharamunean zenbatzen hasita. Dokumentazioa Obra eta Zerbitzuetako Arloan aurkeztuko da, baina Posta Bulegoan ere aurkeztu ahal izango da eskaintzen aurkezpenerako adierazitako baldintza berberak beteta.

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa behin kalifikatuta, eta antzemandako akatsak edo gabeziak, hala badagokio, behin zuzenduta, eskaintza bakoitzaren B gutun-azalak zabaldu eta baloratuko ditu saio publikoan.

B gutun-azalak zabaltzeko eguna, ordua eta tokia Udalaren webgunean eta Udaletxeko zein Hilerriko iragarki tauletan adieraziko dira.

Santurtzin, 2013ko otsailaren 11n.

Alkate Udalburua  
Ricardo Ituarte Azpiazu